



ABENDUAREN 22KO, 35/2020 ERREGE DEKRETU LEGEA, TURISMOA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA SEKTOREEI ETA ZERGA GAJETAN LAGUNTZEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKOA.

BEZ-AREN ARAUBIDE SINPLIFIKATUA

9. artikulua.- Balio erantsiaren gaineko zergan, 2020an, 100eko 20 murriztuko da balio erantsiaren gaineko zergaren araubide sinplifikatuko eragiketa arruntengatik sortutako urteko kuota, nekazaritza, abeltzantza eta arrantza jardueretan ezik. Portzentaje hori 100eko 35eraino igoko da turismo, ostalaritza eta merkataritza sektorearekin lotutako jardueretarako. Murriztapen horiek 2021eko ekitaldiko lehen hiruhilabeteko kuotari dagokion konturako sarrera kalkulatzeko ere aplikatuko dira; eta balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi sinplifikatuaren eragiketa arruntengatik sortutako kuota kalkulatzeko, ez dira jarduera aldi gisa zenbatuko 2020ko lehen seihilekoan alarma egoera deklaraturata egon zen egunak, ez eta 2020ko bigarren seihilekoan, alarma egoera deklaraturata edo ez, agintari eskudunak SARS-CoV-2ak eragindako epidemia egoeraren bilakaera zuzentzeko hartutako neurrien ondorioz jarduera ekonomikoa etenda egon zen egunak ere.

12. artikulua.- 1. BEZaren Erregelamenduko 33.2 artikuluaaren bigarren paragrafoak aipatzen duen uko egiteko epea, baita uko egitearen errebokaziorako epea ere, 2021. urterako ondorioak izan behar baitute, 35/2020 Errege Lege Dekretua BOEn argitaratu eta biharamunetik 2021eko urtarrilaren 31ra bitartekoa izango da.

2. Ulertuko da epe balioudunear aurkeztu direla 2020ko abenduan, aurreko 1. apartatuan jarritako epea hasi aurretik, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide berezi erraztuari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari 2021erako egindako ukoak eta errebokazioak.

100eko 0ko ZERGA TASA

Azken xedapenetako zazpigarrena. Balio erantsiaren gaineko zergaren tasa, SARS-CoV-2aren eraginei aurre egiteko beharrezkoak diren ondasun eta zerbitzu prestazio jakin batzuen batasun barruko entrega, inportazio eta eskurapenentarako, bai eta baliokidetasun errekarguaren araubide bereziaren ondorioentarako ere.

1. Errege lege dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrerako ondorioekin, eta 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren 100eko 0ko tasa aplikatuko zaie honako hauei:

- a) SARS-CoV-2aren *in vitro* diagnostikorako osasun produktuen entrega, inportazio eta eskurapenak, baldin eta honako xedapen hauetan jasotakoko beharkizunak betetzen badituzte: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren urriaren 27ko 1998/79/EE Zuzentaraua, *In vitro* diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa; edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 5eko 2017/746/EB Erregelamendua, *In vitro* diagnostikorako osasun produktuei buruzkoa eta Batzordearen 1998/79/EE Zuzentaraua eta 2010/227/EB Erabakia indargabetzen dituen; eta *In vitro* diagnostikorako osasun produktuei buruzko irailaren 29ko 1662/2000 Errege Dekretua.
- b) Europako Batzordeak baimendutako SARS-CoV-2aren aurkako txertoen entregak.



c) Batasun barruko entrega, inportazio eta eskurapenekin lotutako garraio, biltegiatze eta banaketa zerbitzuen prestazioak, aurreko a) eta b) letretan jasotakoak.
Eragiketa horiek eragiketa salbuetsi gisa dokumentatuko dira fakturan.

2. Aurreko apartatuan aipatutako denbora tartean, 100eko 0ko baliokidetasun errekaruaren tasa aplikatuko zaie apartatu horretan adierazitako ondasunen entreegi.